ABENDUALDIKO I. DOMEKEA /A

I. Irakurgaia

Jaunak herri guztiak batzen ditu bere erreinuan,
betiko bakea gozau dagien.

Isaias Profetearen liburutik **(**Is 2, 1-5)

Isaiasek, Amosen semeak, Judari eta Jerusalemi buruz izandako ikuskaria:
Azken egunetan, Jaunaren etxea dagoan mendia
mendi guztien buru ezarriko dau Jaunak,
muino guztien gainetik jasoko da;
nazino guztiek hara joko dabe
eta herri asko joango da bertara, esanez:
«Zatoze, igon dagigun Jaunaren mendira,
Jakoben Jainkoaren etxera:
Berak erakutsiko deuskuz bere bideak,
eta gu Haren bidezidorretan ibiliko gara;
Siondik urtengo dau-eta legeak
eta Jerusalemetik Jaunaren berbeak».
Berak epaituko ditu nazinoak,
auzira ekarriko herri guztiak.
Golde bihurtuko dabez ezpatak
eta igitai lantzak.
Ez dau herrik herriren aurka ezpatarik jasoko,
ez dira gudurako barriro trebatuko.
Zatoz, Jakoben herri,
gabilzan Jaunaren argitan.

Salmoa
Sal 121, 1-2. 4-5. 6-7. 8-9



R/. Bagoaz pozik Jaunaren etxera.

Ha poza nirea, esan eustenean:
«Bagoaz Jaunaren etxera».
Oraintxe gure oinak heldu dira,
Jerusalem, zure atarira. **R/.**

Leinuak, Jaunaren leinuak, hara igoten dira,
Israelen lege danez, Jaunaren izena ospatzera.
Han dago jarririk auzi-mahaia,
Davideneko mahaia. **R/.**

Eskatu egizuez Jerusalementzat bakerako diranak:
«Nasai bizi beitez zu maite zaituenak».
Izan bedi bakea zure harresietan,
nasaitasuna zure jauregietan. **R/.**

Nire anaia eta lagunakaitik,
hau dinot: «Bakea zugaz».
Jaunaren, gure Jaunaren, etxeagaitik,
ondasunak opa deutsudaz zuri. **R/.**

II. Irakurgaia

Hurrean dogu gure salbamena.

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik (Erm 13, 11-14)

Senideok: Ohartu zaiteze zein sasoitan bizi zareen. Izan ere, ordua da lotatik esnatzeko, sinisten hasibarri haretan baino hurrago dogu-eta orain gure salbamena.
Badoa gaua, gainean dogu eguna; kendu dagiguzan, beraz, ilunpetako egintzak eta jantzi argitako armak. Gabilzan jator, egun-argiz lez: ez jan-edankerietan eta mozkorkerietan, ez lohikerietan eta neurribakokerietan, ez hasarre eta norgehiagokerian. Hartu egizue Jesu Kristo Jauna soineko, eta ez ibili grina txarrak asetu guran.

Ebanjelioa

Zagoze zuhur, prest egon zaitezen.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik (Mt 24, 37-44)

Aldi haretan, Jesusek esan eutsen ikasleei: *Noeren sasoian lez jazoko da Gizonaren Semearen etorrerakoan ere. Uholde aurreko egunetan, jan-edanetan ebilen jentea, eta ezkondu egiten ziran gizon-emakumeak, Noe ontzian sartu zan eguneraino; eta ez ziran konturatu, uholdea etorri eta guztiak eroan zituan arte. Holan izango da Gizonaren Semearen etorrerakoan ere. Orduan, gizon bi izango dira soloan: bata hartu egingo dabe eta bestea itzi; emakume bi ibiliko dira errotarrian: bata hartu egingo dabe eta bestea itzi.
Zagoze zuhur, ez dakizue-eta zein egunetan etorriko dan zuen Jauna. Hartu hau gogoan: etxeko nagusiak baleki gaueko zein ordutan etorriko dan lapurra, zuhur egongo litzateke eta ez leuke bere etxea zulatzen itziko. Egon, bada, prest zuek ere, gitxien uste dozuen orduan etorriko jatzue-eta Gizonaren Semea.

HITZALDIA

Senideok: Liturgia aldi barria hasten dogu domeka honetan: *Abendualdiko lehenengo domekea* dogu. Aldi honetan sarri entzungo dogun berbea **itxaropena** da, eta ereduzko irudiak Profetea, Maria eta Joan Bateatzailea izango doguz. Eurek jarriko gaitue gure ingurura eta bizi doguzan aldietara begira: itxaropenaz, ustea Jainkoagan jarrita, egin behar dogula lan esango deuskue.

Zer daukagu Abendualdiko lehenengo domeka honetarako? Herriaren adorea jaso guran datorren profetearen berbea; edo aldiei ondo begiratzeko agintzen deuskun apostoluarena; edo zemai lez ere ulertu daiteken Jesusen mezua…

Murgildu gaitezan, ba, entzundako irakurgaiotan hausnarketatxo bat egiteko, eta gure itxaropena zelan biztu, eta Jainkoari zelan erantzun, bilatzeko.

Hartu daigun gogoan, lehenengo ta behin, edozein aldi, giro edo une txar, *txarragotu* leitekela. *Hau azkena da* uste izan arren, azkenagoa etorri daitekela.

Hori dala-ta, askok unea baino ez dabe bizi izan gura, lehenari eta geroari uko eginda, eskura daukena une hauxe baino ez dala-ta. Eta une hori ahalik eta erosoen bizi izatea bilatuko dabe.

Beste batzuk, aurrera begiratzean, euren txikitasuna eta ezina autortuz, txarkerien errua besteei (agintariei, edo ahaltsu diranei) leporatuko deutse, eta hareik aldatzen ez diran artean ezer ezin daitekela uste izango dabe; eta etsipenak jota bizi izango dira.

Profetearen berba adore-emoileak entzun dauzanak, eta hondamen egoeran egon gura ez dauanak aurrera itxaropenez begiratu baino, Paulori jaramon eginda, aldiak, egoerak eta uneak aztertuko ditu, eta euretan zelango zintzotasuna eta ahalegina eskatzen jakozan bilatuko dau.

Jesusi jaramon eginez, *bata hartua eta bestea bertan itzia izango dala* onartuz, lanean jarriko da; besteak ustelkerian bizi dirala ikusi arren, bere eredua emon gura izango dau; merezi dauala uste izango dau; bere esku dagoana emon behar dauala uste izango dau…

Hainbeste arazo daukaguz, senideok, gizarte mailan, Eliza mailan, eta baita bakotxak bere familian ere… inori leporatuko deutsogu errua, eta ezer egiterik ez dagoala uste izango dogu? Ala, egoerea hobetzeko, bakotxaren lana eta zintzotasuna behar dirala-ta, uste Jainkoagan jarri, hari argi eta adore eskatu, eta norberenetik emoten ahaleginduko gara?

Aldi barri honek aukera barri bat emoten deusku: zaharra alde batera bota, aurrera begiratu, eta itxaropenaz lan egiteko aukerea. Ez daiguzan bilatu errudunak, eta bai, alderantziz, lanerako eta zintzotasunerako ereduak. Abendualdiko Liturgiak aurrean jarriko deuskuz. Adi!

OTOITZA

Aldi barria hasten dogu, Jauna,
itxaropenera deitzen deuskun aldia.
baina ikusten eta sufritzen doguzan arazoak
(ustelkeriak eta gabeziak)
hortxe dira, eta etsipenera garoez.

Eta zeu ere hortxe zagoz, Jauna,
guri hauspo emon guran, itxaropena,
eta onak garaile urtengo dauala
eta merezi dauala zintzo jokatzeak esaten.

Hain beharrezko zaitut burruka honetan…
Izan daitela nire garrasia: **Zatoz, Jesus Jauna!**